



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

## **IRAGARKIA**

Ikuskizun publikoak, noizbehinkako aisialdi jarduera eta aisialdi erabileren zein egoitza izaerako erabileren arteko bizikidetza arautzen dituen Ordenantzaren jendaurreko informazioko legezko epea igaro ondoren, 2017ko uztailaren 26ko Osoko bilkurak ondoko testuaren arabera behin betiko onartu du.

*Erabaki honek amaiera jarri dio administrazio-bideari.*

## **ERREKURTSOAK**

*Interesatuak administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezake bi hilabeteko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita. Helegite hau, Euskal Herriko Epaimahai Gorenaren Administrazioarekiko Auzialdiko Salaren aurrean aurkeztu beharko da.*

## **IKUSKIZUN PUBLIKOAK, NOIZBEHINKAKO AISIALDI JARDUERAK ETA AISIALDI ERABILEREN ZEIN EGOITZA IZAERAKO ERABILEREN ARTEKO BIZIKIDETZA ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA**

### **I. TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK.**

#### **1. artikulua. Printzipio nagusiak**

Ordenantza honen xedea da establezimendu askatasunaren printzipioaren —Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006ko abenduaren 12ko 2006/123/EE Zuzentarauak, barne merkatuko zerbitzuei buruzkoak, eta horren garapen araudiak xedatutakoa— eta segurtasunaren nahiz bizikidetzaren printzipioaren arteko oreka bermatzea, bereziki egoitza izaerako erabilerak nagusi diren eremuetan aisialdi jarduerak garatzeko orduan.

Ildo horretan, aitortu behar da herritarrek askatasuna dutela aisialdirako eta olgetarako moduak hautatzeko, eta ikuskizunen sustatzaileek eskubidea dutela ekitaldi sorta zabal eta askotarikoa eskaintzeko; baina horrek guztiak muga bat dauka: ezinbestean bermatu behar dira interes orokorraren aldeko betekizun legalak segurtasunaren, bizikidetzaren eta pertsonen eskubideen errespetuaren esparruan. Ezin dugu ahaztu, askotan, aisia eta olgeta eremuak egoitza izaera nagusi duten hiri guneetan kokatzen direla, eta bertan ezinbestekoa dela bertako bizilagunen atsedena bermatzea, baita inguruneko aire kalitate, garbitasun eta osasungarritasun baldintza egokiak ere.

Beste gai batzuk, ordenantza honen xedearekin zerikusia izan arren, bestelako jarduera esparruetatik jorratu behar dira, erasandako kolektiboen partaidetza handiagoa eskatzen baitute. Oro har, adingabeak eta gazteak ahultasun egoeran daude bereziki, mendekotasuna sortzen duten substantzien gero eta eskaintza handiagoa baitago,



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

alkohola barne; gainera, ongi ikusita dago substantzia horiek modu neurrigabeen hartzea, bai oro har, bai kolektibo zehatz batzuetan; horrez gain, kontsumo hutsaren inguruan ulertzen da aisia batez ere. Hori guztia kontuan hartuta, prebentzio eta heziketa esparruetan ardaztutako jarduerak jarri behar dira abian, eta guztion ardura da hori: administrazioena, hezitzaileena, gurasoena, eta erasandako gazteena. Halaber, kontuan hartu behar da, horien guztien jarduera esparru nagusia ez dela erregelamenduzko arau bat.

Beraz, ordenantza honen asmoa da arazo horren alderdi partzial bat arautzea, partziala izan arren, garrantzitsua baita: aisialdiaren eta atsedenen arteko bateragarritasuna arautzea, udal eskumenak kontuan hartuta, bereziki egoitza izaerako erabilerak nagusi diren eremuetan herritarren arteko bizikidetzaren bermatzearen har daitezkeen neurriak ezartzeko, ordutegi, segurtasun edo higiene zein osasungarritasun arazoak direla eta, pertsona egoiliarren bizitzak erasan ditzaketen establezimendu publikoen jardueraren kasuan.

Azkenik, ordenantzaren helburua da partikularrek aldi behin antolatzen dituzten ikuskizun publiko edo aisialdiko jarduerak garatzeko segurtasun baldintzak bermatzea.

## **2. artikulua. Xedea**

Ordenantza honen xedea da espazio publiko zein barruti pribatuetan aldi behin antolatzen diren aisialdi jarduerak eta ikuskizun publikoak arautzea, aipatutako esparruan indarrean dagoen legeriaren osagarri moduan.

Halaber, aisia jardueren eta egoitza erabileren arteko bateragarritasuna bermatzeko beharrezkoak diren neurriak hartzea arautzen du ordenantzak, batez ere erasandako bizilagunek atsedena hartzeko duten eskubidea bermatzeko, baita jardueren sustatzaileek, erabiltzaileek edo dagokion gaitze administratiboaren titularrek osasungarritasun, segurtasun eta garbiketa betebeharrak betetzen dituztela ziurtatzeko ere.

Hirugarrenik, ordenantza honek hainbat neurri ezartzen ditu droga menpekotasunaren esparruan indarrean dagoen legeria bermatzeko, hain zuzen ere espazio publikoetan alkohola eta bestelako substantziak kontsumitzeari dagokionez.

Azkenik, araudi taula bat ezartzen du arau hausteak eta zigorrak zehatzuz, betiere indarrean dagoen legeriak aurrez ezarritakoak eragotzi gabe.

Xedapen iragankorraren bidez, udalerrian, beren instalazioak zarataren esparruan indarrean dagoen araudira egokitu ez dituzten ostalaritza establezimenduei aplikatu beharreko erregimen iragankorra ere arautzen da.

## **3. artikulua. Aplikazio eremua.**



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Azkoitiko udalerrian aplikatuko da ordenantza hau.

#### 4. artikulua. Definizioak

Ordenantza honen ondorioetarako, definizio hauek hartuko dira kontuan:

- a) Ikuskizun publikoak: publikoa biltzen duen edozein ekitaldi, ikuskizun, erakusketa, jarduera, edo arte, kultura, kirol zein bestelako izaerako entretenimendu edo proiektzioa ikusteko, berdin eskaintzen badituzte antolatzaileek edo artistek, kirolariek ala azken horien izenean jarduten duten eragileek, lokal itxi batean, lokal ireki batean, aire zabaleko barrutietan edo kaleetan, instalazio finko, eramangarri edo desmuntagarrietan.
- b) Aisialdi jarduerak: pertsona talde bat biltzen duten jarduerak, pertsona edo erakunde antolatzaile batek aisialdirako edo olgetarako eskaintzen dituen zerbitzuetan parte hartu edo zerbitzu horiek jasotzeko.
- c) Establezimendu publikoak: edozein eraikin, lokal, barruti edo instalazio, jendea har dezakeena, bertan ikuskizunak eskaintzen badira edo jolas jarduerak egiten badira.
- d) Espazio irekiak: ikuskizun publikoak edo jolas jarduerak egiteko erabiltzen diren eremu, leku edo kaleak, horretarako azpiegitura edo instalazio finkorik gabeak.
- e) Establezimendu publikoaren titularrak: lege honetan aipatutako establezimenduak irabazteko asmoz edo irabazteko asmorik gabe ustiatzen dituzten pertsonak, bai fisikoak bai juridikoak, publikoak nahiz pribatuak izan.
- f) Antolatzaileak: irabazteko asmoarekin ala gabe, ikuskizun publikoak edo jolas jarduerak egin edo sustatzen dituzten pertsonak, bai fisikoak, bai juridikoak, publikoak nahiz pribatuak izan.
- g) Erregimen berezian jendeari irekitako establezimenduak: herritarren arteko bizikidetzara, segurtasuna edo osasuna modu nabariagoan erasan dezaketen establezimenduak dira hauek, ordutegi berezia eta bestelako baldintza bereziak baitituzte. Horiek guztiak araudi bidez ezarri behar dira.
- h) Instalazioak: egitura higitarri iraunkorrak edo behin-behinekoak, eramangarriak edo finkoak, ikuskizun publikoak edo jolas jarduerak garatzeko erabil daitezkeenak.

#### 5. artikulua. Salbuespenak

Ordenantza honen aplikazio esparrutik kanpo geratuko dira, betiere kasu bakoitzean dagokion araudia betetzea eragotzi gabe, jarduera pribatuak, familia edo gizarte



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

izaerako jarduerak, baldin eta horiek garatzen diren instalazio, barruti edo espazioak jendeari irekita ez badaude, eta Euskal Autonomia Erkidegoko jendaurreko ikuskizunen eta jolas jardueren eta ikuskizun publikoen katalogoan ageri ez badira, eta ez badute udal lizentziarik behar. Halaber, salbuespenaren barne egongo dira Konstituzioan zehaztutako oinarritzko eskubideak gauzatzean egiten diren jarduerak, horien artean hauteskunde legeriak araututakoak. Horrez gain, salbuespenaren barne egongo dira Udalak zuzenean edo horretarako bereziki sortutako batzordeek antolatutako ikuskizun publikoak eta jolas jarduerak.

Azkenik, Ordenantza honen esparrutik kanpo geldituko dira Azkoitiko herriguneko eta auzoetako jaien inguruan antolaturiko ikuskizun eta ekintzak. Hala ere, kasu guztietan jabari publikoaren okupazioak udalaren baimena beharko du.

**II. TITULUA. UDAL TITULARITATEKO ESPAZIO IREKI EDO LOKALEN ERABILERA ETA OKUPAZIOA EKIMEN PRIBATUKO NOIZBEHINKAKO IKUSKIZUN PUBLIKO EDO JOLAS JARDUERETAN**

**6. artikulua. Printzipio nagusiak**

1. Kaleak, espazio publikoak eta horietan kokatutako instalazio zein hiri altzariak erabilera eta gozatze publikorako dira, banakako askatasuna eta gainerakoekiko errespetua konbinatuz.
2. Espazio irekietan garatzen diren jarduerak ezin dute gainerako pertsonen erabilera orokorrerako eskubidea mugatu, non eta ez duten lizentzia edo baimenik eremu horien erabilera erkide berezirako edo erabilera pribaturako.
3. Alkatetzari dagokio espazio irekietan garatzen diren erabilera zein jarduerak zehaztu eta bateratzea, unean-unean interes publikoarentzat lehentasuna dutenak lehenetsiz. Horretarako, eragozpenik edo bateraezintasunik sortzen dituzten jarduerak aldi baterako debekatu edo mugatuko dira.
4. Izaera orokorreko erabilera erkideek lehentasuna izango dute erabilera pribatuen aurrean. Hala ere, bi erabilera motak bateratu eta erabilera pribatuak ahalbidetuko dira, interes publikoari eragozpen handirik sortzen ez badiote.
5. Sustatzaile partikularrek espazio irekietan edo izaera publikoko lokaletan antolatutako noizbehinkako edo ezohiko ekitaldiek errespetatu beharko dute ordenantza honetan xedatutakoa, baita gainerako alorreko araudi aplikagarria ere, bereziki ikuskizun publikoei eta jolas jarduerari buruzkoa, droga menpekotasunei buruzkoa eta espazio publikoen garbiketa eta apainketari buruzkoa.



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

5. Edonola ere, bermatu beharko da betetzen direla gizonen eta emakumeen arteko berdintasunerako araudian, irisgarritasunari buruzkoan eta herritarren hizkuntza eskubideei buruzkoan zehaztutako legezko betebeharrak.

### 7. artikulua. Lizentzia eskuratu beharra

Espazio irekietan edo izaera publikoko lokaletan noizbehinkako edo ezohiko ikuskizun publikoak edo jolas jarduerak egiteko dagokion lizentzia eskuratu beharko da. Horretarako, Azkoitiko Udalak espediente bat izapidetuko du, eta dagokion jarduerak erasandako udal zerbitzuei buruzko txostena osatu beharko da.

### 8. artikulua. Pertsona edo erakunde eskatzaileak aurkeztu beharreko dokumentazioa. Administrazio jarduleak egiaztatu beharreko datuak

Gutxienez, ekitaldia egingo den data **baino bi hilabete lehenago** aurkeztu beharko zaio baimen eskaera administrazio eskudunari. Eskaerarekin batera, dokumentazio hau aurkeztu beharko da gutxienez:

1. Eskatzailearen ordezkariaren egiaztapena, baldin eta halakorik badago, hain zuzen ere 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 5. artikuluan xedatutakoaren arabera.
2. Udalaren alde emandako baimena, hain zuzen ere, zerga betebeharretan eta gizarte segurantzakoan egunean dagoela frogatzen duen ziurtagiria zuzenean beste administrazio eskudunen eskutik jasotzeko.
3. Egin nahi den ikuskizun publikoa edo jolas jarduera azaltzen duen txostena, horren barne nahitaez zehazturik data(k) eta hasiera zein amaiera ordutegiak.
4. *Teknikari eskudunak sinatutako ziurtagiria, zehazki azalduz:*
  - 4.1. *Ikuskizuna edo jarduera egingo den espazioak behar bezala betetzen duela segurtasunari eta babes zibilarri buruzko araudia. Horrekin batera, espazioaren 1:500 eskalako plano eguneratua aurkeztu beharko da, egitura desmuntagarriak edo eramangarriak, hala nola, agertokiak edo edariak zerbitzatzeko barrak, non jarriko diren ere, baldin eta ekitaldira joaten den publikoarentzat eta bertan lan egingo duten langileentzat okupazio dentsitatea murrizten badute. Halaber, lokaleko altzariak non birkokatuko diren ere adieraziko da, baldin eta horiek mugitu behar badira. Azken atal hau ez da aurkeztu behar, egiturak edo instalazioak udalaren jabetzakoak badira, eta udalaren ardurapean jartzen badira.*
  - 4.2. *Edukieraren banaketa eremuen arabera, irisgarritasun mugatuko eremuak eta murriztu edo gehituko diren plazak, baldin eta halakorik badago.*
  - 4.3. *Suteen edo bestelako arrisku kolektiboen aurkako prebentzio eta babes neurriak.*



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

5. *Elikagaiak manipulatzeko badira, Eusko Jaurlaritzak zehaztutako higiene eta osasun baldintzak bete beharko dira. Manipulazio maila apala eskatzen duten elikagaien kasuan (ogitarteko hotzak, produktu ontziratutako...), horiek saldu ahal izango dira.*
6. *Edalontzirik erabiltzen bada, biodegradagarriak edo jarduera jakin baterako berariaz fabrikatutako edalontzi berrerabilgarriak izango dira.*
7. *Antolatzaileek azaldu behar dutte erabiliko dituzten neurriak jarduerak sorturiko hondakinak bereizteko, eta ahalik eta birziklapen gehiena lortzeko.*
8. *Hiri ingurunea, ingurumena eta natura zein kultura ondarea babesteko neurriak azalduko dituzte eskatzaileek.*
9. Eusko Jaurlaritzaren 2014ko martxoaren 25eko 44/2014 Dekretuak ikuskizunetarako, aisia jardueretarako eta establezimendu publikoetarako erantzukizun zibilerako eskatzen duen aseguru kontratatu dela egiaztatzen duen ziurtagiria, aseguru konpainiak igorritakoa. Bestela, dagokion aseguru polizaren kopia bat eta dagokion primaren ordainagiriaren kopia bat aurkeztu beharko dira.
10. Ekitaldia egingo den espazioan publikoarentzat eta ikuskaritza agintarientzat erreklamazio orriak eskuragarri jartzeko konpromisoa.
11. Azkoitiko Udalak eskatutako bermearen ezarpen egiaztatzea.
12. Noizbehinkako edo ezohiko ikuskizun publikoak edo jolas jarduerak baimentzeko administrazio tasaren ordainagiria, baldin eta nahitaez ordaindu behar bada.
13. Interes publikoko arrazoi justifikatuak direla eta, administrazio emaileak eskatutako beste edozein dokumentu.

Halaber, Azkoitiko Udalak egiaztatuko du pertsona edo entitate eskatzailea Jarduera Ekonomikoaren gaineko Zergan altan dagoela, halakorik behar badute.

## **9. artikulua. Espedientea izapidetzea eta ebazpena. Administrazioaren isiltasuna**

Ebazpena emateko organo eskudunak, aurkeztutako dokumentuak aztertuta eta kasuan kasuko lokaletako, eremuetako edo instalazioetako ikuskaritzen emaitza ikusita, baimena emango du edo ukatu egingo du, gehienez, **hogeita hamar laneguneko** epean eskaera aurkeztu denetik aurrera zenbatzen hasita, antolatzaileari eta, hala badagokio, prozeduran interesdun direnei entzun ondoren.

Epe hori eten egingo da akatsak konpontzeko edo dokumentuak aurkezteko eskatzen bada, eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeko 22. artikuluan aurreikusten diren gainerako egoeretan ere bai.



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Baimenak 10 eguneko epean jakinarazi beharko zaizkio eskatzaileari, eta berehala eman beharko zaie horien berri Udaltzaingoari eta, hala badagokio, Babes Zibileko Zerbitzuari.

Epe horiek igaro eta ez bada berriazko ebazpenik eman, eta garatu beharreko jarduera etxebizitza eremu batean kokatu behar bada, **administrazioaren isiltasunagatik baimen eskaera ezetsi dela** ulertuko da, hain zuzen ere 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 24.1 artikuluan xedatutakoaren arabera. Gainerako kasuetan, administrazioaren isiltasun bidez eskaera onartu dela ulertuko da.

Ikuskizuna edo jarduera abian jarri baino lehen, ikuskatzaileak bertaratuko dira, baimendutako baldintzak betetzen diren egiaztatzeraz. Horrek ez du eragozten ikuskapenak egitea ikuskizun edo jarduerak egiten diren bitartean 10/2015 Legeko 40. eta 41. artikuluetan xedatutako baldintzetan.

Ordenantza honetan araututako baimenak emateak ez du eragozten, indarrean dagoen legeriaren arabera, ikuskizun publikoek, jolas jarduerak eta establezimendu publikoek, beren ezaugarrien arabera, bestelako baimenik lortu behar izatea.

## **10. artikulua. Bermea ezartzea**

**1.** Noizbehinkako edo ezohiko ikuskizunen edo jolas jardueren antolatzaileek **bermea ezarri beharko dute administrazio baimen emailearen alde**, ikuskizuna edo jarduera antolatu eta egiteagatik sor daitezkeen betebeharrak ekonomiko posiblei erantzuteko, hain zuzen ere 44/2014 Dekretuak, jolas jarduerak eta ikuskizun publikoak burutzeko eska daitezkeen erantzukizun zibileko aseguruak arautzen dituenak, xedatutako erantzukizun zibileko aseguruaren edo ordenantza honetako 8. artikuluan xedatutako aseguru exijigarriaren estaldurapean ez daudenak. Bermea itzuliko da egiaztatzen denean berme hori ezartzeko kausaren batengatik antolatzaileak erantzukizunik ez duela, administrazio baimen emaileak emandako ikuskapen akta baten bitartez.

**2.** Zenbateko hauen arabera ezarriko da bermea:

- a) Espazio irekiaren edukiera 500 pertsona bitartekoa denean: 1.000 euro.
- b) Espazio irekiaren edukiera 501 eta 1.000 pertsona bitartekoa denean: 2.000 euro.
- c) Espazio irekiaren edukiera 1.000 pertsona baino gehiagokoa denean: 3.000 euro.
- d) Edukieran gehitzen diren 1.000 pertsona gehiago bakoitzeko: 1.000 euro, gehienez 18.000 euroko mugaz.

**3.** Bermea itzuliko da egiaztatzen denean berme hori ezartzeko kausaren batengatik antolatzaileak erantzukizunik ez duela, administrazio baimen emaileak emandako ikuskapen akta baten bitartez.



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

4. Antolatzaileari ezarri beharreko bermea murriztu edo kendu ahal izango dio administrazio baimen emaileak artikulua honetan xedatutakoaren arabera, onodrengo irizpideak kontutan hartuta:

- Jarduera egun argiz egitea.
- Jarduera ongintzaren edo interes sozialeko helburuen aldekoa izatea, administrazio baimen emailearen iritziz.

**11. artikulua. Azkoitiko udalerrriaren zarata mapa**

Noizbehinkako ikuskizun publikoak eta jolas jarduerak egiteko baimena emateko orduan, Azkoitiko Udalaren udal ordenantzan xedatutakoa kontuan hartu beharko da, zarata edo gaitasun akustikoko mapetan xedatutako zehaztapen eta baldintzatzaileei dagokienez, inpaktu akustikoa murrizteko ekintza planek eta neurrien berariazko udal planek xedatutakoari dagokienez, eta, orobat, kutsadura akustikoa ekidin edo murrizteko indarrean dauden arau eta programei dagokienez.

**12. artikulua. Orduategia**

Irekitzeko eta ixteko orduategiari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko ikuskizun publikoen, jolas jardueren eta establezimendu publikoen orduategiei buruzko araudiak xedatutakoa beteko da, baita ordenantza honetan xedatutakoa ere. Hala ere, egoitza erabilera nagusi den eremuen barne, espazio publikoetan edota udal titularitateko lokaletan ikuskizun antolatuak egiteko ematen den lizentziaren ebazpenean berariaz zehaztu beharko da ekitaldia amaitzeko gehieneko orduategia, jarduera horrek erasan ditzakeen bizilagunen atsedenerako eskubidea betetzeko.

**13. artikulua. Barrakak, ikuskizun piroteknikoak eta udalerrri arteko kirol probak**

Barrakak, ikuskizun piroteknikoak eta udalerrri arteko kirol probak ezartzeko instalazioari eta funtzionamenduari buruzko baimena egokituko zaio alorreko araudi aplikagarrian xedatutakoari.

**III. TITULUA. IKUSKIZUN PUBLIKOAK LOKAL PRIBATUETAN**

**14. artikulua. Lizentzia eskuratu edo aurretiko komunikazioa egin beharra. Egoerak**

1. Establezimendu publiko baten irekiera lizentziaren edo jarduera sailkatuaren aurretiko komunikazioaren bidez, establezimendu motaren arabera berezkoak diren





AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

edota horretarako gaitzen duen tituluan xedatutako ikuskizun eta jarduerak garatzeko gaitasuna ematen da.

**2.** 10/2015 Legeak, Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jarduerenak, xedatutako ikuskizun, jolas jarduera eta establezimendu sailkapenean bereizita ageri diren jarduera bateragarriak garatzen baditu establezimendu batek, hori lizentzian edo aurretiazko komunikazioan zehaztu beharko da. Halaber, lokalak edo barrutiak erabilera bereziko gunee desberdinak baditu, bakoitzaren edukiera zehaztu beharko da. Ordenantza honen ondorioetarako, jarduera bateragarritzat joko dira ordutegiaren, zuzkiduren edo bertaratu daitekeen publikoaren arabera baliokideak direnak.

**3.** Establezimendua gaitzen duen tituluak baimena ematen du jarduera nagusiaz gain, kultura edo gizarte jarduera osagarriak edota antzerki zein musika ikuskizun osagarriak egiteko, **baldin eta jarduera osagarri horiek ez badituzte titulu horretan xedatutako gainerako baldintzak aldatzen**; eta bereziki, ez badituzte aldatzen edukiera, ordutegi erregimena, lokalaren instalazioak edo eraketa, edota ez badu autobabeserako plana erasaten, baldin eta horrelakorik behar bada.

Edonola ere, jarduera osagarria abian jarri baino lehen, horren berri emateko **jakinarazpena** aurkeztu beharko zaio Udalari.

**4.** Ondorioz, noizean behin jarduera osagarriak egiteko, besteak beste, noizbehinkako ikuskizunak, kontzertuak eta abar, aurretiko lizentzia eduki beharko du establezimenduak, baldin eta lokalak ez badu gaitzen duen titulurik, edo egin beharreko jardueraren ondorioz bere garaian igorritako irekiera lizentziako edo aurretiko irekiera jakinarazpeneko baldintzak aldatzen baditu: edukiera areagotzea, ordutegi erregimena aldatzea, zarata mugak aldatzea, autobabeserako plana aldatzea, segurtasuna aldatzea edo publikoarentzat egitura desmuntagarriak ezartzea.

### **15. artikulua. Lizentzia eskuratzeko eta, edonola ere, ekitaldia egiteko baldintzak**

Ikuskizun publikoak edo jolas jarduerak egiteko, honako baldintza hauek bete beharko dira:

**a)** Behar bezala identifikatutako pertsona edo entitateen ardurapean iragarri, antolatu eta egin behar dira. Behar bezala zehaztuta egongo da nor den arduraduna eta ordenantza honetan xedatutakoaren araberrako gaitze titulu baten babespean dagoela. Edonola ere, lokal guztiek, irekita egoteko, dagokion lizentzia edo aurretiko komunikazioa eduki beharko dute.

**b)** Lokaletan edo ekitaldia egiten den espazioetan segurtasun, osasungarritasun eta higiene eta irisgarritasun unibertsalaren baldintzak bete behar dira.

**c)** Indarrean dagoen araudiak hala xedatzen badu, jagoletzarako eta sarbidea kontrolatzeko langileak eduki behar dira.



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

- d) Autobabeserako plan bat eduki behar da, indarrean dagoen legeriak hala xedatzen badu.
- e) Araudiak xedatutako higie eta segurtasun zerbitzuak eduki behar dira, baita osasun laguntza emateko gailuak ere.
- f) Pertsonak kontatzeko eta edukiera kontrolatzeko sistemak eduki behar dira, hala dagokionean.
- g) Ikuskizun publikoaren edo jolas jardueraren eragin akustikoaren balioespena aurkeztu behar dira, eta beharrezkoa bada, eragin hori ekidin eta murrizteko beharrezkoak diren neurriak hartu.
- h) Legeak eskatzen duen aseguru poliza kontratatuta eduki behar da.
- i) Aplikagarria den garapen araudian xedatutako baldintzak bete behar dira.

#### **16. artikulua. Lizentzia eskaerarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa**

Gutxienez ekitaldia egingo den data baino **bi hilabete lehenago** aurkeztu beharko zaio baimen eskaera administrazio eskudunari. Eskaerarekin batera, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da gutxienez:

1. Eskatzailearen ordezkartzaren egiaztapena, baldin eta halakorik badago, hain zuzen ere 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 5. artikuluan xedatutakoaren arabera.
2. Udalaren alde emandako baimena, hain zuzen ere, zerga betebeharretan eta gizarte segurantzakoan egunean dagoela frogatzen duen ziurtagiria zuzenean beste administrazio eskudunen eskutik jasotzeko.
3. Okupatu beharreko espazioaren titularrak onespena eman duela adierazten duen frogagiria.
4. Egin nahi den ikuskizun publikoa edo jolas jarduera azaltzen duen txostena, zehazturik data(k) eta hasiera zein amaiera ordutegiak, halaber jardueraren deskripzioa.
5. Teknikari eskudunak sinatutako ziurtagiria, zehazki azalduz:
  - 5.1. Ikuskizuna edo jarduera egingo den espazioak behar bezala betetzen duela segurtasunari eta babes zibilar buruzko araudia. Horrekin batera, espazioaren deskribapen plano eguneratua aurkeztu beharko da, eremuetako sarrerak eta hustuketa irteerak, osasungarritasun baldintzak, zein higie zerbitzuak zehaztuz baita egitura desmuntagarriak edo eramangarriak, hala nola, agertokiak edo edariak zerbitzatzeko barrak, non jarriko diren ere, baldin eta ekitaldira joaten den publikoarentzat eta bertan lan egingo duten langileentzat okupazio dentsitatea murrizten badute.



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Halaber, lokaleko altzariak non birkokatuko diren ere adieraziko da, baldin eta horiek mugitu behar badira.

- 5.2. Edukieraren banaketa eremuen arabera, irisgarritasun mugatuko eremuak eta murriztu edo gehituko diren plazak, baldin eta halakorik badago.
- 5.3. Egituren irmotasuna eta instalazioen funtzionamendua.
- 5.4. Instalazio elektrikoa.
- 5.5. Suteen eta jarduerari lotutako bestelako arriskuen prebentzioa eta horren aurreko babesa, kanpoko sorospen baliabideen irisgarritasuna errazteko.
- 5.6. Hiri ingurunea, ingurumena eta natura zein kultura ondarea babesteko neurriak, bereziki jarduera egingo den lokalaren inguruko espazioenak.
- 5.7. Irisgarritasuna eta arkitektura oztopoak ezabatzea.
- 5.8. Laneko segurtasunari eta osasunari buruzko araudia betetzen dela.
- 5.9. Plano bat 1:500 eskalan egina, jarduerak okupatuko duen azalera osoa, instalazioen tamainak eta jarduerak okupatutako espazioaren inguruan kokatutako hiri altzari eta instalazio publikoak zehaztuta.
- 5.10. Edozelan ere, ekitaldia sustatzen duen pertsonak edo erakundeak ez du Azkoitiko Udalaren esku dagoen dokumentazio teknikoa aurkeztu beharko, edo Udal honek emandako lizentziaren baldintzen aldaketa kaltetzen ez duena.
6. Eusko Jaurlaritzaren 2014ko martxoaren 25eko 44/2014 Dekretuak ikuskizunetarako, aisia jardueretarako eta establezimendu publikoetarako erantzukizun zibilerako eskatzen duen aseguru kontratatu dela egiaztatzen duen ziurtagiria, aseguru konpainiak igorritakoa. Bestela, dagokion aseguru polizaren kopia bat eta dagokion primaren ordainagiriaren kopia bat aurkeztu beharko dira.
7. Ekitaldia egingo den espazioan publikoarentzat eta ikuskaritza agintarientzat erreklamazio orriak eskuragarri jartzeko konpromisoa.
8. Lokaleko sarbidea kontrolatu eta bertako edukiera kontrolatzeko neurriak hartu direla azaltzen duen deklarazioa.
9. Noizbehinkako edo ezohiko ikuskizun publikoak edo jolas jarduerak baimentzeko administrazio tasaren ordainagiria, baldin eta nahitaez ordaindu behar bada.
10. Interes publikoko arrazoi justifikatuak direla eta, administrazio emaileak eskatutako beste edozein dokumentazio.

Halaber, Azkoitiko Udalak egiaztatuko du pertsona edo entitate eskatzailea Jarduera Ekonomikoaren gaineko dagokion zergan altan dagoela, eta lokalak irekiera lizentzia edo aurretiko irekiera komunikazioa duela.



## 17. artikulua. Lizentzia izapidetzea. Ebazpena eta isiltasuna

Ebazpena emateko organo eskudunak, aurkeztutako dokumentuak aztertuta eta kasuan kasuko lokaletako, eremuetako edo instalazioetako ikuskaritzen emaitza ikusita, baimena emango du edo ukatu egingo du, gehienez, **hogeita hamar laneguneko** epean eskaera aurkezten denetik aurrera zenbatzen hasita, antolatzaileari eta, hala badagokio, prozeduran interesdun direnei entzun ondoren.

Epe hori eten egingo da akatsak konpontzeko edo dokumentuak aurkezteko eskatzen bada, eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeko 22. artikuluan aurreikusten diren gainerako egoeretan ere bai.

Baimenak 10 eguneko epean jakinarazi beharko zaizkio eskatzaileari, eta berehala eman beharko zaie horien berri Udaltzaingoari eta, hala badagokio, Babes Zibileko Zerbitzuari.

Epe horiek igarotakoan berriazko ebazpenik eman ez bada, baimen eskaera **onartutzat** joko da **administrazioaren isiltasun positiboz**, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeko 24. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz.

Ikuskizuna edo jarduera hasi aurretik, ikuskaritza bisita egingo da baimendutako alderdiak egiaztatzeko; dena den, horrek ez du eragotziko ikuskizuna edo jarduera egin bitartean ere ikuskaritza egin ahal izatea, 10/2015 Legeko 40. eta 41. artikuluetan araututako baldintzetan.

Ordenantza honetan arautzen diren baimenak emateak ez du eragotziko ikuskizun publikoek, aisialdi jarduerak eta establezimendu publikoek, horiez gain, beste baimen batzuk eskuratu behar izatea, haien ezaugarrien arabera eta indarrean dagoen legeriari jarraituz.

## 18. artikulua. Aurretiko komunikazioa

Dagokion titulua duten lokaletan noizean behingo ikuskizun publikoak edo aisialdi jarduerak egin nahi direnean, haien aurreko komunikazioek jarraitu egin beharko diote JARDUERETAKO ONDORENGO ESKU HARTZE, KONTROL ETA EGIAZTAPENERAKO UDAL ORDENANTZAN edo horren ordeztu erabili behar den araudian finkatutakoari. Ordenantza hori Azkoitiko Udalak onartu zuen, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2013ko ekainaren 6an.

Dokumentuak ikuskizun publikoa edo aisialdi jarduera hasi baino **hamar lanegun** lehenago aurkeztu beharko dira, gutxienez. Dokumentuetan, hau guztia adierazi behar da:



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

- a) Nor den establezimenduaren titularra edo ikuskizunaren edo jardueraren antolatzailea.
- b) Zer ikuskizun publiko, aisialdi jarduera edo zerbitzu emango diren, hala badagokio.
- c) Zenbat iraungo duten, hala badagokio; zehatz-mehatz adierazi behar da noiz hasi eta noiz amaituko diren.
- d) Ikuskizunak edo jarduerak zer establezimendu publikotan edo zer gunetan egingo diren.
- e) Establezimendu edo gune horiek zenbateko edukiera duten.
- f) Arauz finkatuta dauden gainerako dokumentuak.

Nolanahi ere, eskatzaileek ez dituzte aurkeztu behar izango Udal honek jada badituen dokumentuak.

2.- Aurretiko komunikazioa aurkezteak ikuskizun publikoa edo aisialdi jarduera egiteko ahalmena ematen du, baina horrek ez du oztopatuko administrazio eskudunak egiaztatze, kontrol eta ikuskaritza lanak egiteko eskumena. Indarraldia amaitu egingo da ikuskizuna edo jarduera egiten denean.

#### **19. artikulua. Baliogabetzea eta bertan behera uztea**

Lizentzia eman ondoren egiaztatzen bada lizentzian bertan finkatutako edo jarduera arautzen duen araudiko edozein baldintza ez dela bete, Udalak lizentzia baliogabetzeko aukera izango du, eta pertsona edo erakunde sustatzaileak ez du kalte-ordainik jasotzeko eskubidea izango, ezta hirugarren batek ere.

Era berean, administrazio eskudunari aurretiko komunikazioa helarazten ez bazaio edo komunikazioari atxiki zaion oinarrizko edozein datu, adierazpen edo dokumentu okerra edo gezurra bada edo aurkezten ez bada, ezingo da eskubidea edo jarduera gauzatzen jarraitu egitate horiek egiaztatzen diren unetik aurrera, eta horrek ez du oztopatuko sor litezkeen erantzukizun penal, zibil edo administratiboak eskatzea. Horrelako egoeretan, administrazio eskudunak ikuskizun publikoa edo aisialdi jarduera bertan behera utzi ahal izango du.

Ondorio horietarako, oinarrizko datutzat jotzen dira udal baimena eta aurretiko komunikazioak arautzen dutenak, ordenantza honetan xedaturikoak.

#### **IV. TITULUA. AISIALDI ERABILERAK ETA EGOITZA ERABILERAK BATERAGARRIAK IZATEKO ETA ERASANDAKOEN ESKUBIDEAK BERMATZEKO NEURRIAK.**

#### **ZARATA, EDARI ALKOHOLDUNAK ETA SUBSTANTZIA ESTUPEFAZIENTEAK SUSTATZEA, ETA OSASUNGARRITASUN ETA HIGIENE NEURRIAK**

#### **20. artikulua. Instalazioak**



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Konkurrentzia publikoko ostalaritza eta errestaurazio jarduerara bideratutako establezimenduek, dagoeneko existitzen direnek zein zabalduko direnek, existitzen diren urbanizatutako eremuetan ezar daitezkeen zaratarako kalitate akustikoko helburuak eta Euskadiko Autonomia Erkidegoaren kutsadura akustikoari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren I. Eranskinaren 1. Zatiaren A eta B Tauletan ezarritako etxebizitza, egoitza, ospitale, hezkuntza eta kultura erabileretara bideratutako eraikinen bizitzeko moduko barne espazioan ezar daitezkeen zaratarentzako kalitate akustikoko helburuak bermatzeko aukera ematen duten isolamendu instalazioak izan beharko dituzte.

Ordenantza honetako Lehen Xedapen Iragankorrean, araudi horrek dakartzan egokitzapenak egin ez dituzten establezimenduei aplikatu beharreko erregimen iragankorra arautzen da, horretarako finkatu den epean zehar. Epe hori amaitzen denean, dagozkion establezimenduek kategoria, eta beraz, ordutegia egokitu beharko dituzte instalazioen ezaugarrien arabera.

## **21. artikulua. Mugagailuak**

Udalak eskatu ahal izango du hotsak mugatzeko ekipoak instalatzeko egoitza erabilerako eremuetan dauden establezimenduetan, interes publikoko arrazoiak justifikatuta badaude. Faktore hauek hartu beharko dira kontuan:

- Egoitza erabileraren intentsitatea
- Aisialdi establezimenduen kopurua, eta haien sailkapena
- Establezimendu bakoitzeko instalazioen ezaugarriak
- Eragina ingurunean

## **22. artikulua. Ikuskaritza eta kontrola**

1. Legez finkatu diren zarata igorpenerako mugak betetzen direla ziurtatzeko, ikuskaritza eta kontrol lanak egingo dituzte eskumena duen udal zerbitzuak edo beharrezko espezializazio teknikoak duten pertsona edo erakunde kolaboratzaileek, baldin eta Udalak horretarako eskumena ematen badie.

2. Jardueraren, lokalaren edo establezimenduaren titularrek edo arduradunek beharrezkoa denean eta oztoporik jarri gabe utzi behar diete sartzen ikuskaritza eta kontrol lanak egiteko baimena dutenei, eta behar den guztian lagundu behar diete.

3. Salaketa bat jartzen bada zaratagatik eta airetiko zarataren kontrako isolamendua egiaztatu behar bada, honako honek ordainduko du lan hori:

- a) Jardueraren titularrak edo arduradunak, langile kualifikatuek edo gaitasuna duen erakunde batek eginiko neurketa erreal baten bidezko datua ez badu.



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

- b) Udalak, egiaztatu nahi bada jardueraren titularrak edo arduradunak airetiko zarataren kontrako isolamenduari buruz emandako datua.
- c) Erreklamaziogileak, baldin eta Udalak baliozkotzat badu airetiko zarataren kontrako isolamenduari buruzko datua, eta hala ere, erreklamaziogileak egiaztatzea nahi badu eta emaitza indarreko araudian finkatutako mailekin bat badator. Hartara, neurketa egiten bada eta maila behar baino handiagoa bada, jardueraren titularrak edo arduradunak ordainduko du.

### **23. artikulua. Jarduerak establezimenduen kanpoaldean.**

Aisialdi establezimenduetako kontsumitzaileak eta erabiltzaileak ezingo dira establezimenduen kanpoaldean geratu Udal honek horri buruz onartutako ordenantzan terrazak eta oin bakarreko mahaitxoak ixteko finkatutako ordutik kanpo, berdin du kanpoaldeko gune hori publikoa edo pribatua den.

Kanpoaldeko gunetzat hartzen da fatxadaren lerroa gainditzen duena, eta aldi berean, alde guztietan itxita ez dagoena edo isolatzeko behar diren instalazioak ez dituen.

Establezimenduen titularrek eta haien mendekoez izango dute xedapen hau betearazteko erantzukizuna, eta behar diren neurriak hartu beharko dituzte bete dadin.

### **24. artikulua. Edari alkoholdunak ematea eta saltzea**

1.- Debekatuta dago honelako pertsonen edari alkoholdunak saltzea edo ematea:

- a) Adingabeak
- b) Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzko apirilaren 7ko 1/2016 Legeko 33.2 artikuluan aipatzen diren profesionalak

2.- Orobat, debeku hori bete egin behar da ordenantza honetako II. tituluaren arautu diren noizean behingo jardueretan.

### **25. artikulua. Tabakoa ematea, saltzea eta kontsumitzea**

Ordenantza honen pean dauden establezimenduetan tabakoa ematea, saltzea eta kontsumitzearen harira, bete egin behar dira Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzko Eusko Legebiltzarraren 1/2016 Legean finkatutako aginduak. Bereziki, debekatuta dago tabakoa kontsumitzea establezimendu publikoetako barrualdean eta gune erdiitxietan.

### **26. artikulua. Establezimendu publikoetan sartzea**



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

1. Debe katuta dago 16 urtetik beherakoak edari alkoholdunak prestatzen dituzten establezimendu publiko itxietan sartzea eta geratzea; adibidez, tabernetan, dantzalekuetan, diskoteketan, ikuskizunetan eta jendearentzako aisialdi aretoetan. Horrenbestez, oro har, ezin dira sartu eta geratu alkohola saltzen edo kontsumitzen den toki edo establezimendu publikoetan, gurasoekin edo haien gaineko erantzukizuna duten pertsonekin ez badaude.

2. Aurreko paragrafoan adierazitako tokietan, debeku horren berri ematen duten kartelak jarri behar dira, ongi ikusteko moduan.

3. Edonola ere, debe katuta dago 16 urtetik beherakoak taberna berezietan, pubetan eta disko-tabernetan sartzea eta geratzea, adinez nagusikoekin ez badaude; edozein kasutan ere, ezin dute alkohola kontsumitu eta ezin dira geratu 22:00etatik aurrera.

## **27. artikulua. Osasungarritasuna eta higiena establezimenduetan**

1. Ordenantza honen pean dauden establezimenduetan, jarduera martxan jartzeko tituluan finkatuta dauden osasungarritasun eta higiena baldintzak bete behar dituzte.

2. Bereziki, zabalik eta funtzionatzeko egoera egokian izan behar dituzte higiena zerbitzuak, eta berariaz debe katuta dago eremu horiek ixtea eta ez erabiltzeko moduan izatea, izan osorik izan zati bat.

## **28. artikulua. Establezimenduen ingurua garbitzea**

1. Jarduera komertzial edo industrial batek inguruan edo baimendutako gunean zikinkeria sortzen badu maiz, establezimenduaren titularrak garbi izan beharko du bide publikoaren dagokion zatia, eta horrek ez du oztopatuko lizentziei aplika dakiekeen erregimena direla-eta sor daitezkeen neurri zuzentzaileak eta gainerako betebeharrak gauzatzea.

2. Erabilera erkide bereziaren eta pribatiboaren ondorioz bide publikoan sortzen den zikinkeria titularren erantzukizuna da, edo hala badagokio, jardueraren sustatzaileena. Ildo horretatik, jendeari zuzenean saltzeko establezimenduen titularrek behar bezain garbi izan behar dituzte hala beren instalazioak nola horien eraginpean dagoen hiriko eremua, berdin du establezimenduak finkoak diren edo ez; esate baterako, tabernak, kafetegiak, txosnak, kioskoak, terrazak eta salmenta postuak.

3. Halaber, bildu egin behar dituzte establezimenduaren pean dagoen inguruan salmenta dela-eta bide publikoan geratzen diren hondakinak. Garbiketa lan hori, gehienez, ordubete egingo da, establezimendua edo salmenta puntua ixten denetik





AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

aurrera zenbatzen hasita; nolana ere, une oro izan behar ditu garbitasun eta higiene baldintza egokiak.

4. Hori guztia betetzen ez bada, udal zerbitzuak bilduko eta garraiatuko ditu hondakinak, eta horrek dakarren kostua interesdunak hartuko du bere gain. Horrez gain, baliteke zehapenak sortzea, administrazio prozedura baten bidez.

5. Udalak eskatuta, baliteke aurreko atalean aipatzen diren titularrak ontzi homologatuak jarri behar izatea establezimenduetan hondakinak uzteko eta gordetzeko, kontsumoaren ondorioz sortzen direnak; hala, elementu horietan ere garbiketa eta mantentze lanak egin beharko lituzkete.

6. Debekatuta dago edozein likido edo hondakin mota isurtzea estolda sarean eta iturri publikoetan.

### **29. artikulua. Garbiketa betebeharrak ekintza publikoak modu pribatuan antolatzen direnean**

1. Ekintza publikoa titulartasun publikoko guneetan prestatzen duten antolatzaile pribatuak dira ekintza hori dela-eta sortzen den zikinkeriararen erantzule.

2. Hiria garbitzearen harira, ekintza publikoen antolatzaile pribatuek Udalari adierazi behar diote non izango diren, zer ibilbide izango duten eta zer orduz izango duten. Udalak berme bat jartzeko eskatu ahal izango die, ekintzaren ondoriozko zikinkeria garbitze aldera egin behar izango lirakekeen ezohiko garbiketa lanen arabera. Gunea eta haren eraginpeko eremua erabat garbi badaude, itzuli egingo zaie bermea. Erabat garbi ez badaude, egin beharreko ezohiko lanen zenbatekoa kendu egingo zaio bermeari.

3. Era berean, neurria justifikatzeko moduko jendetza etortzekoa bada, Udalak komun kimiko mugikorak instalatzeko eska dezake ekitaldia baimentzeko baldintza gisa. Pertsona edo erakunde antolatzaileek instalatu eta ordainduko dituzte komun horiek; dena den, horrek ez du oztopatuko gune publiko batean kokatzeko behar duten lizentzia eskatu behar izatea.

### **30. artikulua. Kalteak jabari publikoan**

